

FUNTSEZKO JARDUERA

Enpresa honek jarduerak eduki al izateko, orain arteko guztia ondo atera dela esan nahi du. Horretarako, gure ustez, funtsezkoa da guztiok, bakoitzak dakiena ematea eta gure artean ondo moldatzeaz gain, ados ez zaudenean adieraztea eta zuretzat ez gordetzea oso garrantzitsua da.

Honez gain, bakoitzak ze alderdi on eta txar dituen jakitea ezinbestekoa da, taldearen onurarako. Horrela, taldean zure egin beharrak zeintzuk diren jakin ditzakegu eta lana banatzerako orduan bakoitzak bere gustuko zerbait egin dezan. Horrela, bakoitzak bere eginbeharra zein den argi jakin dezakegu.

Ander Probanzak negozio asko egin ditu, horregatik gure irabazi- iturriak eta gastu guztiak berak eramatea egokiena iruditzen zaigu. Kalkuluetan oso ona da eta konfiantza dugu beregan. Aurrekontua berak egingo du eta denboraren zehar enpresaren egoera- ekonomikoa nolakoa den ikusiko du. Diru sarrerak eta kostuak ere berak eramango ditu. Gainera, abokatu baten laguntzarekin nominak egingo ditu trebeena delako.

Maddik, Ander Probanzarekin batera, proiektua aurrera eramango dute, oso onak dira honetan eta inoiz ez dute atzera egiten. Baita, Ander Irureri garraioan lagundu, laguntza behar badu. Horrez gain, webgunea eraman behar digun lagunari informazioa emango dio eta informazio hau eguneratua edukitzen saiatuko da, gauzak berri eta interesgarriak igota.



E.E.

Ander Irure, teknologian trebea da eta diseinuak ondo egiten ditu, horren inguruko gaietan aritu delako lanean eta familiako kide batzuk ingeniarian lan egiten dutelako eta zerbait dakielako. Gainera betidanik bidaiatu du, eta oso gogoko du. Bidaiatzen esperientzia duenez, orientazio oso ona du eta furgoneta eramateko egokiena da, leku asko ezagutzen baititu jada.

Aimar Arranzek, marketina eramango du, hau da, jendea erakarriko du eta produktuak saltzen saiatuko da, bere trebetasuna baita. Gainera, betidanik, bai lagunekin, bai familiarekin, kontaktuan egotea gustatzen zaionez, bezeroekin berdin egongo delakoan gaude, beraiekin harremanetan eta beraiengatik kezkatzen, dena ondo doakiela ziurtatzeko. Honi esker, bezero permanenteak izango ditugulakoan gaude, beregan konfiantza handia dugulako eta ondorioz, dirua etengabe irabazten egotea errazagoa da. Beraz, gure helburua, ahalik eta bezero permanente gehien edukitzea da, diru gehiago irabazi al izateko.

Web orrialdea egin behar dugu gure lagunaren laguntzarekin eta bertan, produktuaren informazioa txertatuko dugu jendeak garbi eduki dezan zer den eta zer zeregin duen. Kontsignen diseinua, guztiok batera adostu beharko dugu, proiektuaren oinarria delako. Sare sozialetan oso aktiboak gara eta enpresarentzat bat egitea pentsatu dugu, horrela, jendeak produktua ikustea errazagoa delako eta bezero gehiago edukiko ditugula pentsatzen dugulako.

Halaber, oso garrantzitsua iruditzen zaigu iragarkiak txertatzea egunkarietan, jende anitzek irakurtzen dutelako. Honek, kostu bat izaten du baina ordaintzea egokiena dela uste dugu; beharrezkoa delako. Beste enpresa batzuei galdetu diegu eta iragarkiak jarrita beraien salmenta %15ean igo zela esan digute. Horregatik, kostu hau edukitzea onartu dugu.

Esan dugun bezala, furgoneta bat dugu eta ez dirudien arren abantaila bat da, adibidez, garraiatzeko oso eroso delako eta kontsignarentzat toki nahikoa duelako. Ander Irureri asko gustatzen zaio Euskal Herriko herrietatik bidaiatzea eta horregatik gure enpresaren gidaria izango da. Hortaz, ez dugu garraio enpresa bat kontratatu beharko eta honi esker ez dugu beste garraio batean dirua gastatu beharko, ezta enpresa hori kontratatzen ere.

